

II - ARABAKO LURRALDE HISTORIKOAREN TOKI ADMINISTRAZIOA

VITORIA-GASTEIZKO UDALA

EKONOMIA SUSTAPENAREN, ENPLEGUAREN, MERKATARITZAREN ETA TURISMOAREN SAILA

Gasteizko turismoaren sektoreari aparteko laguntzak emateko 2021. urteko deialdi publikoa eta berriazko oinarri arautzaileak

2020ko abenduaren 11n onetsi zituen Tokiko Gobernu Batzarrak Gasteizko Udalaren dirulaguntzen deialdiak arautzen dituzten oinarri orokorrak. 2020ko abenduaren 30ko ALHAOn —148. zk.— argitaratu ziren oinarri orokor horiek, eta Udalaren webgunean kontsulta daitezke —www.vitoria-gasteiz.org—, baita herritarrei laguntzeko bulegoetan ere. Berriazko deialdi honetara aurkeztu nahi duten pertsona eta entitateek oinarri orokor horietara jo beharko dute jakiteko non eta nola aurkeztu eskabideak, zein betekizun eta betebeharrak izango dituzten eskatzaileek, nola justifikatu behar dituzten dirulaguntzak, zein formulario baliatu behar dituzten eta abar.

2021eko martxoaren 26an egindako bilkuran onetsi zituen Tokiko Gobernu Batzarrak 2021ean Gasteizko turismoaren sektoreari aparteko laguntzak emateko udal programaren deialdi publikoa eta berriazko oinarri arautzaileak. Iragarki honen bitartez, turismoaren sektorea babesteko berriazko oinarriak argitaratzen dira.

COVID-19ak eragindako osasun publikoaren larrialdiak gure ekonomiaren sektore askotan izan ditu ondorioak, besteak beste, turismoaren sektorean. Izan ere, pertsonak askatasunez mugitzeari jarritako aldi baterako mugak turismoaren sektorearekin lotutako ekoizpen-jarduerara ia gehienei egin die kalte.

Testuinguru horretan, Gasteizko Udalak aparteko laguntza-ildo hau jarri du martxan; administrazioaren beste mailetan sustatu diren gainerako neurriekin egiten du bat, eta Gasteizko udalerrian egoitza duten turismoaren alorreko mikroenpresei eta profesionalei berriazko laguntza du xede.

Horrenbestez, oinarri horiek argitaratu ematen dira, denak jakinaren gainean egon daitezten:

1. oinarria. Dirulaguntzen ildoak

Gasteizko turismoaren sektorea babesteko 2021eko aparteko laguntzak, SARS-CoV-2aren hedapena geldiarazteko hartutako neurriek kalte egin dieten jarduerari zuzenduta.

2. oinarria. Deialdiaren xedea

Gasteizko udalerriko turismoaren sektoreari aparteko laguntzak emateko baldintzak arautzea da oinarri hauen xedea; horrela, enpresen bideragarritasunari eusten lagunduko zaio, Covid-19aren pandemiaren aurkako borrokan hartutako neurrien ondorioz itxi behar ez dezaten.

Norgehiagoka baliatuko da dirulaguntzak emateko.

3. oinarria. Dirulaguntza eskatzen duten pertsona edo entitateen betebeharrak

Pertsona fisiko eta juridikoak izan ahalko dira oinarri hauetan arautzen diren laguntzen onuradun, beren izaera juridikoa edozein delarik ere, baldin eta helburu sozialaren bidez turismoaren sektorean dihardutela egiaztatzen badute eskabideak aurkezteko epea hasten denean, eta betekizun hauek betetzen badituzte:

— Enpresaren egoitza soziala eta fiskala Gasteizko udalerrian edukitzea.

– Deialdia argitaratzen den datan (ALHAOko iragarkia) alta emanda egotea Ekonomia Jardueren gaineko Zergaren epigrafe hauetako batean gutxienez:

ATALA	TALDEA EDO EPIGRAFEA	JARDUERAREN DESKRIAPENA
1	681	Hotel eta moteletako ostatu-zerbitzua
1	682	Hostal eta pentsioetako ostatu-zerbitzua
1	683	Ostatu eta apopilo-etxeetako ostatu-zerbitzua
1	684	Hotel-apartamentuetako ostatu-zerbitzua
1	685	Hotela gairik egoitza turistikoak
1	686	Agentzia edo enpresa antolatu baten bidez egindako apartamentu pribatuen ustiapena
1	687	Kanpamentu turistikoak
1	755	Bidaia-agentziak
1	755.1	Beste bidaia-agentzia batzuei emandako zerbitzuak
1	755.2	Bidaia-agentziek publikoari emandako zerbitzuak
2	854	Biltzarrek, batzarrek eta antzekoak antolatzen adituak
2	882	Turismo-gidariak
2	883	Turismo gidari-interpretak
1	989	Ikuskizunarekin eta turismoarekin loturiko beste jarduerak batzuk. Biltzarren antolaketa. Parkeak edo feria lekuak.
1	989.2	Biltzarrek, batzarrek eta antzekoak antolatzeko zerbitzuak

Betebehar hori ofizios egiaztatuko du Gasteizko Udalak.

- Bi milioi euro baino gehiagokoa ez izatea urteko negozio-bolumena edo balantze orokorra.
- Hamar langile baino gehiago ez izatea.
- Mikroenpresa izateko aurretik adierazitako baldintzak betetzen ez dituzten enpresei lotuak ez egotea, eta halakoek ehuneko 25etik gorako partaidetza zuzena nahiz zeharkakoa ez edukitzea bertan.
- Betebehar fiskalak, Gizarte Segurantzarekikoak eta Gasteizko Udalarekikoak beteta edukitzea.
- Administrazio-bidean edo bide penalean zigortua eta laguntza publikoak eskuratzeko aukerarik apartatua ez egotea, ezta Dirulaguntzei buruzko azaroaren 17ko 38/2003 Lege Orokorraren 13. artikuluan 2. eta 3. artikuluan aurreikusitako gainerako zirkunstantzietako batean ere, hots, dirulaguntzen onuradun izatea galarazten duen zirkunstantziaren batean.

Nolanahi ere, baztertua geratzen dira sozietate publikoak eta zuzenbide publikoko entitateak, baita irabazi-asmorik gabeko entitateak eta elkarte- edo lanbide-jarduerak burutzen dituztenak ere (elkarteak, lanbide elkargoak eta abar).

4. oinarria. Aurrekontu-zuzkidura

2021eko udal aurrekontuetako 2021/0810.4331.471.04 partidaren kontura (“Garapen lokalak-Ekitaldiak erakartzea”) ordainduko dira oinarri hauetan aurreikusten diren dirulaguntzak. 100.000,00 eurokoa da partida horren zuzkidura.

Dirulaguntzei buruzko Legearen Erregelamenduaren 58. artikuluan ezarritakoaren ildotik, zuzkidura hori handituz izango da organo eskudunaren erabaki baten bitartez, baldin eta udal sail horrek kudeatutako laguntza-deialdietakoren batean soberako krediturik badago.

5. oinarria. Indarrean jartzea eta eskabideak aurkeztea

ALHAOn argitaratzen diren egunaren biharamunean jarriko dira indarrean oinarri hauek —aldez aurretik Dirulaguntzen Datu-base Nazionalean laburpen-iragarkia argitaratuko da—.

Eskabideak aurkezteko epea hamabost egun baliodunekoa izango da, deialdi hau ALHAOn argitaratzen den egunaren biharamunean hasita.

Enpresak eskabide bakar bat egin beharko du, jarduera gauzatzen duen lokalen kopurua edozein delarik ere. Enpresa bakoitzeko dossier bakarra tramitatuko da.

Eskabidean dirulaguntza zein negozio-lokalerako eskatzen den adierazi ahalko da (hiru gehienez), bai eta lokal horiei dagokienez kontratatutako langileen eta lokal horien jabe izatearen egiaztatiriak ere.

Eskabideak epez kanpo aurkezten badira, ezetsi egingo dira.

6. oinarria. Dirulaguntzak emateko prozedura

Ekonomia Sustapenaren, Enpleguaren, Merkataritzaren eta Turismoaren Sailari dagokio oinarri hauetako laguntzak kudeatzea; horretarako, hautatze eta jarraipen batzorde bat sortuko da, Ekonomia Sustapenaren, Enpleguaren, Merkataritzaren eta Turismoaren Saileko zuzendariak eta Biltzar eta Turismo Zerbitzuko buruak osatua, eta Turismo Zerbitzuko teknikariak arduratuko dira eskabideak aztertu eta ebaluatzeaz.

Norgehiagoka baliatuko da laguntzak emateko prozedura gisa, eta, hortaz, alderatu egingo dira aurkeztutako eskabideak, deialdian ezarritako irizpideei jarraituz.

Ekonomia Sustapenaren, Enpleguaren, Merkataritzaren eta Turismoaren Saileko zinegotzi ordezkariaren ebazpenaren bidez eman edo ukatuko dira laguntzak, hautatze- eta jarraipen-batzordeak proposamena aurkeztu ondoren.

7. oinarria. Ebazteko epea

Gehienez sei hilabeteko epean ebatziko da prozedura, deialdia ALHAOn argitaratzen denetik. Epe hori berariazko ebazpenik eman gabe igaroz gero, dirulaguntza eskuratzeko eskabidea ezetsizat joko da.

ALHAOren eta Gasteizko Udalaren egoitza elektronikoen bidez egingo dira dirulaguntzak emateko edo ukatzeko ebazpenaren jakinarazpenak, betiere Datu pertsonalak babesteari eta eskubide digitalak bermatzeari buruzko abenduaren 5eko 3/2018 Lege Organikoari jarraituz.

Dirulaguntzak emateko nahiz ezesteko ebazpenak administrazio-bidea agortuko du, eta horren kontra aukerako berraztertze-errekurtsoa aurkeztu ahalko da zuzenean ebazpena eman zuen organoaren aurrean, hilabeteko epean, jakinarazten den egunaren biharamunetik, Administrazio Publikoen Administrazio Prozedura Erkidearen urriaren 1eko 39/2015 Legearen 123. eta 124. artikuluetan xedatutakoaren arabera; edo administrazioarekiko auzi-errekurtsoa, bi hilabeteko epean, dagokion administrazioarekiko auzietarako epaitegian, Administrazioarekiko Auzien Jurisdikzioa arautzen duen uztailaren 13ko 29/1998 Legearen 8. eta 46. artikuluetan xedatutakoarekin bat etorriz.

8. oinarria. Balioespen-irizpideak

Aurkeztutako eskabideak gehienez 20 punturekin balioetsiko dira, eta irizpide hauek hartuko dira aintzat:

1. Establezimenduko edo lantokiko langile kopurua: gehienez 10 punturekin baloratuko da; establezimenduko edo lantokiko langile bakoitzeko 1 puntu emango dira, lanaldiaren ehunekoa edozein dela ere.

Enpresak laguntza-eskabidearekin batera aurkezten duen dokumentazioaren arabera balioetsiko da irizpide hori.

2. Merkataritza-lokalaren edukitze-erregimena: 5 punturekin baloratuko dira diruz lagundu daitekeen jarduera alokairu-erregimeneko edo indarrean dagoen hipoteka-maileguaren mendeko jabetza-erregimeneko lokal batean egiten dutela justifikatzen duten pertsonak edo enpresak.

Laguntza-eskabidearekin batera aurkeztutako agirien arabera balioetsiko da irizpide hori eta establezimenduaren argazkiak erantsi beharko dira.

3. Kalean bertan dagoen merkataritza-lokalaren edukitze-erregimena: 5 punturekin baloratuko dira diruz lagundu daitekeen jarduera lur-arrasean kokatuta dagoen lokal batean egiten dutela justifikatzen duten pertsonak edo enpresak, baldin eta lokalak erakusleihoa badu eta merkataritza-ordutegi zehatz batean jendearentzat irekita badago. Azoketako nahiz merkataritza-zentro edo -galerietako establezimenduak ere aintzat hartu ahal izango dira.

Laguntza-eskabidearekin batera aurkeztutako dokumentazioaren arabera balioetsiko da irizpide hori. Eskabidean, gainera, lokalaren argazkiak erantsi beharko dira, eskatutako ezau-garriak betetzen dituela frogatzeko.

9. oinarria. Eskabideak balioestea eta dirulaguntza kalkulatzea

8. oinarrian ezarritako irizpideen arabera baloratuko dira diruz lagundu daitezkeen eskabideak, eta lortutako balorazioaren arabera ordenatuko.

Pertsona edo entitate onuradunari emango zaion zenbatekoa lortutako puntuen arabera izango da:

- 1 puntutik 5era: 600,00 euro.
- 6 puntutik 15era: 750,00 euro.
- 16 puntutik 20ra: 900,00 euro.

Ematen den dirulaguntza ezingo da izan, inolaz ere, 2.700,00 eurotik gorakoa, enpresa onuradun bakoitzeko.

Guztira lortutako puntuazioaren arabera ezartzen den hurrenkera horri jarraiki emango dira dirulaguntzak, harik eta erabilgarri dagoen aurrekontu-kreditua agortu arte, eta betiere aurreko atalean ezarritako muga errespetatuz. Berdinketa egokitzuz gero, eta puntuazio bera duten eskabide guztiei erantzuteko aski aurrekontu-krediturik ez badago, enpresa eskatzaileak bere jardueran duen antzintasuna hartuko da aintzat bata edo bestea lehenesteko —Ekonomia-jardueren gaineko Zergako alta-dataren arabera—. Enpresa batek bere jarduera lokal batean baino gehiagotan garatzen badu, antzintasun handiena duen lokalarena joko da Ekonomia-jardueren gaineko Zergako alta-datatzat. Baldin eta geratzen den saldoa ez bada aski baliagarri dagoen kreditua agortzen duen dirulaguntza ordaintzeko, geratzen den kreditua ordainduko zaio horri.

10. oinarria. Ordaintzeko modua

Dena batera ordainduko da laguntza, deialdia ebatzi ondoren. Guztia ere, gerora egin litezkeen ikuskatze- eta egiaztapen-jarduerak gorabehera.

Dirulaguntza onartutzat joko da baldin eta ematen deneko ebazpena argitaratzen denetik hamar eguneko epea igarotzen delarik pertsona edo entitate interesdunak berariaz uko egin ez badio.

11. oinarria. Dirulaguntza justifikatzea

Oinarri hauetan galdatzen den dokumentazio guztia aurkezten delarik joko da justifikatutzat dirulaguntza, eta xedea betetzen dela, eta, horrenbestez, dirulaguntza ematea ebatzen delarik, hura onuradunari ordaintzeko tramitazioa egingo da. Edonola ere, prozedura horren organo instrukzio-egileak onuradunei eskatzen dizkien egiaztagiriko oro dirulaguntza eskatzen duen enpresak ematen duen helbide elektronikoaren bitartez igorri beharko dira.

12. oinarria. Enpresa onuradunen betebeharrak

Pertsona eta enpresa onuradunek betebeharrak hauek izango dituzte:

1. Udalaren egiaztatze-ekintzen mende jartzea, baita bertako Kontu-hartzaitza Nagusiari dagozkion finantza-kontrolerako ekintzen eta Herri Kontuen Euskal Epaitegiaren arauetan aurreikusitakoek mende ere.

2. Dirulaguntza emateko orduan kontuan izandako edozein zirkunstantzia objektibo nahiz subjektibo aldatuz gero, Udalarari jakinaraztea.

3. Laguntza-eskabidea ulertu eta ebaluatzeko beharrezkotzat jotzen den informazio eta agiri osagarri oro Ekonomia Sustapenaren, Enpleguaren, Merkataritzaren eta Turismoaren Sailaren eskura jartzea.

4. Jarduerari lau hilabetez eustea, deialdi honen ebazpena ALHAOn argitaratzen den eguneratik kontatuta.

5. Dirulaguntza justifikatzea, 11. oinarrian adierazten den moduan.

13. oinarria. Bestelako laguntza eta dirulaguntzekiko bateragarritasuna

Dirulaguntza bateragarri izango da helburu berarekin Estatuko edo Europar Batasuneko edozein administrazio edo entitate publiko nahiz pribatuk edo nazioarteko edozein erakundek emandako bestelako dirulaguntza, laguntza, diru-sarrera eta baliabideekin.

14. oinarria. Aurkeztu beharreko agiriak

Agiri hauek erantsi beharko zaizkie oinarri hauetan arautzen diren dirulaguntza-eskabideei, nahitaez:

– Eskabidea eta erantzukizunpeko adierazpena: I. eranskina, behar bezala beteta, eta horretarako ahalmena duen pertsonak sinatuta.

Horrez gain, enpresa eskatzaileek dokumentazio hau aurkeztu ahal izango dute, eskabidea baloratzeari dagozkionetarako:

– Enpresaren tamaina baloratzeko dokumentazioa: azken hilabeteko TC2 edo langileen zerrenda izenduna, Gizarte Segurantzak jaulkia.

– Merkataritza-lokalaren edukitze-erregimena baloratzeko dokumentazioa:

a) Jarduera errentan hartutako lokal batean egiten bada: indarrean dagoen alokairu-kontratua, non laguntza eskatzen duen pertsona fisiko edo juridikoa errentatzaile gisa ageri beharko baita.

b) Jarduera hipotekaren mendeko jabetzako lokal batean egiten bada: merkataritza-lokalaren hipoteka-mailegua formalizatzeko agiria, non laguntza eskatzen duen pertsona fisiko edo juridikoa hipotekatu gisa ageri beharko baita, edo hipoteka-mailegua merkataritza-lokalaren laguntza eskatu duen pertsona fisiko edo juridikoaren izenean dagoela egiaztatzen duen banku-agiria.

Gasteizko Udalarekiko zerga-betebeharrak betetzeari dagokionez, ofizioz begiratuko da enpresa eskatzailea egunean dagoen, baita Ekonomia Jardueren gaineko Zergan zein egoeratan dagoen ere.

Eskabidea aurkezteak Gasteizko Udalarari zerga-betebeharrak eta Gizarte Segurantzarekikoak betetzeari buruzko ziurtagiriak zuzenean hartzeko baimena ematea dakar berekin (I. eranskina). Hala ere, enpresa eskatzaileak berariaz ukatu ahal izango du baimen hori. Horrela bada, Arabako Foru Aldundiarekiko eta Gizarte Segurantzaren Diruzaintza Nagusiarekiko betebeharrak ordainduak dituela egiaztatzen duen ziurtagiria aurkeztu beharko du.

Enpresa eskatzaileak ez badu esleitu Gizarte Segurantzaren sistemako inongo erregimeneko kotizazio-konturik, bertako bazkide guztiak egon beharko dute egunean Gizarte Segurantzaren.

15. oinarria. Akatsak zuzentzea

Dirulaguntza-eskabideari ez bazaizkio deialdian galdatutako nahitaezko agiriak eranstean, hamar eguneko epea emango zaie eskatzaileei falta zaizkien agiriak aurkezteko —Administrazio Publikoaren Administrazio Prozedura Erkidearen urriaren 1eko 39/2015 Legearen 68. artikulua—, eta halaber ohartaraziko hala egin ezean eskabidea bertan behera utzitzat joko dela.

16. oinarria. Datu pertsonalen tratamendua

Datu Pertsonalak Babesteari eta Eskubide Digitalak Bermatzeari buruzko abenduaren 5eko 3/2018 Legea Organikoan xedatutakoaren arabera egingo da datu pertsonalen tratamendua, orobat aintzat hartuz Europako Parlamentuaren eta Kontseiluaren 2016ko apirilaren 27ko 2016/679 Araudia, datuen tratamenduari eta datu horien zirkulazio libreari dagokionez pertsona fisikoak babesteari buruzkoa.

Vitoria-Gasteizen, 2021eko martxoaren 29an

Administrazio Zerbitzuko burua
LUCIO CRUCELEGUI Y JÁUREGUI

I. eranskina: Laguntza-eskabidea eta erantzukizunpeko adierazpena

<https://www.vitoria-gasteiz.org/docs/wb021/contenidosEstaticos/adjuntos/eu/16/11/91611.pdf>